

IRAKASKUNTZA-GIDA

2020/21

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25961 - Baztertze eta Gizarteratze Mekanismo eta Prozesuak

ECTS kredituak:

4,5

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Gizarte Bazterketa eta Gizarteratze Mekanismoak eta Prozedurak irakasgaia hautazkoa da eta F moduluaren barruan kokatuta dago. Sustapen Komunitarioko MINOR-a osatzen du beste ikasgaia hauekin batera: Partehartze Soziala eta Garapen Komunitarioa, Genero Berdintasuna, Zaurkortasun egoerarako Babes Juridikoa, Prebentzio Komunitarioa eta Animazio sozio-komunitarioa.

Bere aldetik, "Sustapen komunitarioko" MINOR-a komunitatean zentratutako heziketaz eta komunitatetik sortutako gizarte akzioaz arduratzen da. Titulazioan zehar ikasitakoari jarraitasuna horrela ematen zaio, esku-hartze integralean testuinguruaren ulermena, analisia, azalpena eta praktikotasunak duen garrantzia bermatuz. Ongizate indibidual nahiz kolektiboan eragitea da helburua gizarte testuinguruaren inguruko irakurketa zabala eta positiboatik abiatuz.

Gizarte Bazterketa eta Gizarteratze Mekanismoak irakasgaia, hirugarren mailako bigarren lauhilabetean eskaintzen da. 4,5 ECTS-eko irakasgaia da, hau da, 112,5 ordutakoa zeintzuk 45 ordu lan presentzialerako diren eta 67,5 ez presentzialerako. Ikaslegoak astero irakasgai honi dedikatu beharreko denbora 7,5 ordutakoa izango da zeintzuk 3 ordu presentzial izango diren eta 4 ordu lan ez presentziala egiteko.

Ikasgaiaren pobrezia, etnizitatea eta migrazio gertaera sozialen azterketa kulturala egingo da. Gaia jorrazteko ezinbestekoak diren oinarriko kontzeptuen ezagutza teorikoa lantzen da hala nola, bazterketa soziala, desbideraketa soziala, delitua, e.a. Horrexegaitik, ikasleek eskuhartuko duten testuinguru, fenomeno eta arazo sozialen inguruko ezagutza sakona bereganatuko dute. Ezagutza teorikoaz gain, eskuhartzean beharrezkoak diren gaitasunak garatzen lagunduko zaie ikasleei. Hau, metodo antropologikoaren berezkoa den 'behaketa' teknikaren inguruan ariketa praktiko bat aurrera eramanez landuko da.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- Garapen komunitarioko dinamikak bultzatuko dituzten gaitasunak, ikuspegi kritikoa nahiz baliabideen ezagutza bereganatzea, animazio soziokomunitarioa gizarte langintzaren ezinbesteko baliabide bezala baloratuz (MC05CM06) (Titulazioko gaitasunak G004 /G008)

- Bazterketa eta marginazio sozialeko egoera ezberdinen analisi eta interpretazio kritikoa egitea, zeinetan inplikaturako pertsona nahiz kolektiboen definizioak, balorazioak eta arrazonamenduak pisu berezia hartuko duten (MC05MC07) (Titulazioko gaitasuna G001 /G002)

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1.go gaia. SARRERA. GIZARTE BAZTERKETA ETA ANTROPOLOGIA.

Ikasgairako sarrera non oinarriko kontzeptu teorikoak eta premisak lantzen diren.

2. gaia. POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETA

Pobrezia kontzeptuan sakonduko da arreta berezia jarriz haren sorrera testuinguruari eta izaera kulturalari.

3. gaia. DELITUA ETA DESBIDERAKETA

Desbideraketa eta delitua kontzeptuak landuko dira eta bereziki, bazterketa sozialarekin duten harremanetaz hausnartu.

4. gaia. ARRAZA, ETNIZITATEA ETA MIGRAZIOAK

Arraza eta arraza soziala kontzeptuetaz hausnartuko da. Etnizitatea eta migrazioa bazterketa sozialerako aitzakiak.

5. gaia. BAZTERKETA BIKOITZA. HAUSNARKETA GENERO SISTEMA BARNERATUZ.

Bazterketa anitza eta interseksionalitatea landu. Emakumeak eta genero bazterketa.

6. gaia BAZTERKETA SOZIALA GIZARTE GLOBALIZATUAN.

Bazterketa mekanismoak eta prozedurak egungo testuinguru globalizatuan uztartu.

METODOLOGIA

Ikasgaia eskola magistralak, gelako praktikak eta ikaslegoaren lan autonomoaren bitartez gauzatuko da.

Ikasgaiari eskeiniko zaizkion 112,5 orduak honela banatuko dira. Horietariko %30-a klase magistralak izango dira. Eskola hauetan oinarriko kontzeptu, teoria eta analisi ereduak landuko dira eta horien bitartez, ikaslegoaren artean ezagutza intelektuala garatuko da.

Eskola magistral hauek osatuko dituzten oinarrizko ekintza formatiboak irakaslearen azalpen teorikoak eta testuen irakurketa eta analisiak izango dira.

Bestalde, ordu kopuruaren %10-a ezagutza teoriko-praktikoen aplikaziorako izango dira. Oinarrizko ekintza formatiboak talde aurkezpenak eta eztabaidak izango dira.

Gainontzeko %60-a ikaslearen lan autonomoa izango da zeina funtsezkoa izango den honek analisi, sintesi eta arrazonomendurako gaitasuna bereganatzeko.

Kasu honetan, oinarrizko ekintza formatiboak testuen irakurketa eta analiza, ikerketa tekniketan trebatzea nahiz saiakera bat idaztea izango dira.

Laburbilduz, ikasgaien zehar landuko diren ekintza formatiboak hauek izango dira:

- Azalpen teorikoak (eskola magistraletan)
- Amankomunean jartzea (eskola magistraletan)
- Dokumentuen irakurketa eta analiza (eskola magistrala eta lan autonomoa)
- Zuzendutako eztabaidak (klase praktikoa)
- Lanen aurkezpena (klase praktikoa)
- Informazioa bilatzea (lan autonomoa)
- Lanen prestakuntza (lan autonomoa)

Ikasgia honetan matrikulatuta dagoen ikasle orok, azken saiakera bat idatzi beharko du.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	33,75		11,25						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	50,5		17						

Legenda:

M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 40
- Banakako lanak % 20
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 20

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazioa jarraituan sartzeko derrigorrezkoa da klasera etortzea.

Bestalde, klaseko nota kontutan hartzeko, azken proba idatzia gainditu egin behar da.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, 9 asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaiaren kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo kasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Irakaskuntza gidak epe zabalagoa jaso dezake. (BOPV. 2017ko martxoaren 13an, 8.3. art.)

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egiteko ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete bat lehenago egin beharko dute eskaria. Eskeri hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari (Idem: 12.2 art.)

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea (BOPV, 2017ko martxoaren 13koa, 12.3. art.)

Ikasgaien matrikulatuta dagoen ikasle orok saiakera bat idatzi beharko du eta azterketa egin ahal izateko, saiakera hau entregatu beharko du lehenago. Uten ikasleek, saiakera gainditua izan beharko dute klaseko nota kontutan hartu ahal izateko.

Ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspentso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio (11.3. art.).

COVID19ak bultzatutako egoeratik, ebaluazio sistema eraldatua izan daiteke eta era ez presentzialean bihurtu. Hala

gertatu ezker, ebaluazio jarraiari lehenetasuna emango zaio eta Egela plataformak ahalbidetzen dituen baliabideak erabiliz ebaluazioa egokitu. Azken ebaluazioa egitea eskatzen duten ikasleekin ere egin beharreko egokitzapenak egingo dira.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdirako arauak eta prozedurak mantenduko dira.

COVID19ak bultzatutako egoeragatik, ebaluazio sistema eraldatua izan daiteke eta era ez presentzian bihurtu.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Derrigorrezko irakurgaiak (e-gela)
- Eskola magistraletan erabilitako porwer pointak (e-gela)
- Lanak eta ariketak egiteko gidak eta irizpide dokumentuak (e-gela)

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

ALONSO, Luis Enrique. (1998). La producción social de la necesidad y la modernización de la pobreza: una reflexión desde lo político. En: Riechmann, J. (Coord.). Necesitar, desear, vivir: sobre necesidades, desarrollo humano, crecimiento económico y sustentabilidad. La catarata. pp. 129-161

BAUMAN, Zigmunt (1999). Perspectivas para los nuevos pobres. En: Trabajo, comunismo y nuevos pobres. Barcelona: Gedisa. pp. 129-152

BAUMAN, Zigmunt. (2005). Culturas del residuo En: Vidas desperdiciadas. Paidós; Barcelona, pp. 123- 171

BECKER, Howard Saul. (1971). Cómo se llega a ser fumador de marihuana En: Los extraños: sociología de la desviación. Bueno Aires: Tiempo contemporáneo, pp. 47-77

CASTELLS, Manuel. (1998). Paraísos comunales: identidad y sentido en la sociedad red En: Castells, M. La era de la información. El poder de la identidad. Alianza: Madrid, pp. 27-90

CORSIN, Alberto. (2007). Cooperación y procomún: relaciones antropológicas. En: Archipiélago 77-78. Barcelona: Archipiélago, pp. 27-31

DAVIS, Mike. (2003). La fortaleza LA En: Ciudad de cuarzo. Madrid: Lengua de trapo.

FLECHA, Ramón. (2001). Racismo moderno y postmoderno en Europa: enfoque dialógico y pedagogías antirracistas. Revista Española de Investigaciones Sociológicas, REIS, 94, pp. 79- 103

GALLEGO, Carmen (1994). Diversidad y multiculturalismo. Acciones en Investigaciones Sociales 2: pp. 195-205.

GARCIA CANCLINI, Nestor. (1989). Culturas híbridas, poderes oblicuos En: Culturas híbridas. Estrategias para entrar y salir de la modernidad. Grijalbo: México, pp. 259- 318

GIMÉNEZ, Carlos. (2000). El planteamiento intercultural y su relación con la ciudadanía y las políticas públicas En: Guía sobre interculturalidad. Segunda parte: el enfoque intercultural en las políticas públicas para el desarrollo humano sostenible. PNUD, pp. 534- 560.

HARRIS, Marvin. (1984). ¿Por qué hay pánico en las calles?. En: La cultura norteamericana contemporánea. Madrid: Alianza, pp. 132-160.

- ¿Por qué se soltaron el pelo los homosexuales? En: La cultura norteamericana contemporánea. Madrid: Alianza, pp. 111-131

LAFUENTE, Antonio. (2007). Los cuatro entornos del procomun En: Archipiélago 77-78. Barcelona: Archipiélago, pp. 15-22

LATOUCHE, Serge. (2007). Estrategias de autogestión en Grand-Yoff. En: La otra África. Autogestión y apaño frente al mercado global. Barcelona: ocebap. pp. 189- 232

MAQUIEIRA, Virginia. (1999). Antropología, género y derechos humanos. Anales del Museo Nacional de Antropología, 6, pp. 13- 48

NIETO, J.A. Transgénero/Transexualidad: de la crisis a la reafirmación del deseo en Transexualidad, transgenerismo y

cultura, Talasa, Madrid, 1998.

ZUBERO, Imanol. (2002). Repensar el empleo, repensar la vida En: El derecho a vivir con dignidad: del pleno empleo al empleo pleno. Ed. Hoac: Madrid: 249-297.

Gehiago sakontzeko bibliografia

BOURDIEU, Pierre. (1999). La miseria del mundo. Akal: Madrid.

GIDDENS, Anthony. (1991). Sociología. Alianza: Madrid.

HUNTINGTON, Samuel. (1997). El choque de las civilizaciones. Paidós: Barcelona

HARRIS, Marvin. (1991). Nuestra especie. Alianza: Madrid.

KYMLICKA, Will. (1996). Ciudadanía multicultural. Paidós: Barcelona

SANTOS. B. de S. (2005). El milenio huérfano. Trotta: Madrid.

Aldizkariak

- Archipiélago. Cuadernos de crítica de la cultura (ISSN: 0214-2686)
- Cuadernos de Antropología Social. (ISSN 1850-275X)
- Cuadernos de Trabajo Social. (ISSN: 0214-0314)
- Gazeta de Antropología (ISSN-e: 0214-7564)
- REIS. Revista Española de Investigaciones Sociológicas (ISSN: 0210-5233)

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK

Lanetan nahiz azterketan, idatzizko komunikazioan zuzentasun edo akats gramatikalak badaude, honek suspentsoa ekar dezake.